

13/10/2009

Aste honetatik aurrera Euskal Herria Museoak ordutegi berria izango du

Aldundiaren jabetzapeko Euskal Herria Museoak aste honetatik aurrera ordutegi berria du.

Martitzenetik zapatura 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara egongo da museoa zabalik. Domeketan museoa ordubete gehiagoz irekita egongo da, 10:30etik 14:30era hain zuzen. Jai egunetako ordutegia, berriz, 10:30etik 14:30era eta 16:00etatik 19:30era izango da.

Orain arte museoa jai egunetan 11:00etatik 14:30ara eta 16:00etatik 20:00etara egoten zen zabalik. Astelehenetan museoak itxita jarraituko du.